



GABONAK
2020
gehiganni berezia





Peregrinus Garagardotegia

·Plater konbinatuak ·Sandwichak ·Hanburesak ·Pintxoak

- Kafeak eta opilak
- Eguneko menuak



CAFE BOULEVARD JATETXEA



txinparta

SAGARDOTEGIA
JATETXEA

Razioak, pintxoak, bokatak
eta eguneroko menua.

Urbil merkataritza gunea

ETXE ATARIRA HURBILDUKO DA OLENTZERO

Mendia ez badoa Mahomagana, Mahoma doa mendira esaera ezaguna lerrootako ekimena aurkezteko ezin baliagarriagoa izango zaigu, oraingoan pandemiak baldintzatu-ta “ospatuko” den urte amaiera honetan Olentzerorekin gertatuko dena ezinhobeto deskribatzen baitu.

Pandemian egonik, ez da kalejira jendetsurik ospatuko aurten, ez zaio duela urtebete bezala Dema plazan harrera egingo. Oraingoan harrera zuek, zuetako bakoitzak egin ahalko diozue etxetik mugitu ere egin gabe. Lekua egokitzen hasi zuen bizilekuko leiho eta balkoietan; hilaren 24an, Olentzero zuen etxe ataritik igaroko da!

Geldiunerik gabeko bira

Olentzero auzoz auzo ibiliko da aurten, usurbildar norbanako eta eragile talde baten laguntzaz. Kamioi ibiltari batean egoki eserita jarriko dute eta berak agurtuko zaituzte. Ekimen ibiltaria izango da, “ez da geldiunerik izango”, hitzordu berezi honen sustatzaile nagusi Asier Ote-gik NOAUA!ri adierazi dionez.

Hilaren 24an arratsaldeko 18:00etan Aginagan abiatu eta gutxi gorabehera pare bat ordu beranduago amaituko da Kaxkoan edo Kaleberrin. Bidean, auzo guztiak zeharkatuko ditu. Olentzerok



Olentzero auzoz auzo ibiliko da abenduaren 24an. 18:00etan abiatuko da bira Aginagatik.

OLENTZEROREN BIRA

Abenduaren 24an, 18:00etatik 20:00etara osatuko du bira. Hauxe ibilbidea: Aginaga, Txokoalde, Urdaiaga, Santuenea, Zubieta, Txikierdi, Kalezar eta Kaxkoa

egingo duen ibilbidearen noranzkoa finkatua dagoen arren, gune bakoitzetik ze orduren bueltan igaroko den zehaztu asmo dute antolatzaileek, halere “gerta daiteke auzo batetik besterako bidean pixka bat berandutzea”.

Ekimen honek Olentzeroren bizimodua hobeto ezagutzeko aukera emango du gainera; “bere etxea zein den ikusiko da”.

Egiteko moduak egokituta

Osasun krisialdiko prebentzio neurriak beteko dira, eta neurriok beteta, haurrak Olentzeroren bisita izatea ahalbidetuko dute. Asier Ote-gik abiarazi zituen pres-taketa lanetara batu dira Udala eta hainbat eragile (Hurbilago, Orbel-di, hainbat norbanako...). “Pena zen, aurreko urte-tako kalejiretako materiala izan, beharrezko osagaiak izan eta ezer ez egitea. Helburua ez zen ekimen berri bat anto-latzea, lehendik egiten zen horri forma berri bat nola eman asmatzea baizik”, Ote-gik NOAUA!ri azaldu dionez. Ekime-na “herriko talde hainbati asko gustatu zaie. Lagundu eta parte hartzeko eraba-terko prestutasuna izan dute”.

GUTUN BILKETA

Olentzeroren bisitarako prestatzen hasteko modua izango da egunotan. Asierrek eta bere lagunek ondutako postontzi bereziak egokitu dituzte. “Koadrilakoek lagundu didate. Gune babestuetan jarriko diren postontzietan utzi ahalko dira gutunak. Zein da asmoa? Euskal Herriko ikazkin ezagunenak auzoz auzoko bira egingo duen egun horretan, biltzen joango dira

postontzietako gutunak.

Ezusteko gehiago izango dira

Gabonetako gehigarri hau inprentara bidean zihola, xehetasun guztiak lotzeko lanetan ziharduten antolatzaileek; postontziak non jarri, noiz... Olentzeroren etorrerari lotuta aipatu ez ditugun ezusteko gehiago ere egon daitezke egunotan; adi beraz.

Olentzero, auzoz auzo

- Abenduak 24, osteguna, 18:00-20:00.
- Olentzero auzoz auzo norabide honetan: Aginaga, Txokoalde, Urdaiaga, Santuenea, Zubieta, Txikierdi, Troiatik gora Kalezar eta Kaxkoa (Munalurra, Atxegalde eta herri erdigunea).
- Antolatzaileak: norbanako eta herri eragile taldea.

“EL DROGAS” DOKUMENTALA SUTEGIN IKUSGAI

Dokumental hau Enrique Villarreal *El Drogas* musikariaren alderdi guztiak aztertzen dituen lan biografikoa da. Memoria indibidual eta kolektiboak uztartzen ditu lanak eta Rock & Rolleko irudi garrantzitsuenetako baten ibilbide historiko eta bizigarrian sakontzen du. Istorio emozional horretan, artistak hartu dituen aurpegi eta bide ezberdinak ikus daitezke. Beste aldean dagoena lor-tzeko oker dabilen izaki baten istorioa da. Horixe da *El Drogas*-en istorioa.

■ Abenduak 18 ostirala, 19:00etan Sutegin.



Sarrerak 5 eurotan daude eskuragarri usurbilkultura.eus atarian.

ZORIONAK Cambridgeko azterketak
gainditu dituzuen guztioi!


tobyngana
english SCHOOL

PET

Natalia Martinez

First Certificate FCE

Adrian Apaolaza

Amaia Sasiain

Aritz Zabaleta

Eider Beguiristain

Elene Alustiza

Gorka Aristondo

Hodei Jauregi

Ibai Marcos

Janire Zuriarrain

Jon Benantzio Elosegui

Julen Benito

Julen Portularrume

Laida Dorronsoro

Malen Arregi

Markel Zaldua

Unai Garate

Unai Sagarzazu

Xabier Macazaga

Advanced CAE

Ane Azkonobieta

Ekhi Camino

Irati Fradejas

Jone Allur

Unai Leon (Level C2)

Unax Labaka

Cambridge ESOL
Exam Preparation Centre



Merry Christmas
and Happy New Year!

GABONEN OIHARTZUNA SANTUENEAN

Gabon hauetan auzoetan ere ekin-
tzez gozatzeko aukera izango da.
Santueneko Auzo Elkarteak antola-
tuta, joan zen asteburuan gabonetako habi
apaingarriak egin zituzten auzoko hainbat
lagunek. Zurezko habiak, beraz, jada prest
dituzte auzotarrek eta ostiralean izango
dute zintzilikatzeko aukera. Arratsaldeko
19:00etan ekitaldi ofiziala egingo dute pla-
zan, jarritako zuhaitza pizteko.

■ Abenduak 18 ostirala, 19:00etan San-
tueneko plazan, Gabonetako zuhaitza piz-
teko ekitaldia.



Abenduaren 18an ostirala, arratsaldeko 19:00etan, Gabonetako zuhaitza piztuko dute Santuenean.



Ondo pasa
gabonetan!

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31



AIZPURUA OKINDEGIA

OGIAK
GOZOGINTZA
TARTAK
ARDOAK

*Festetan zure mahaia ondo hornitu
nahi baduzu, gurean baduzu aukera!*

KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20

'AIOKO' IKUSKIZUNA HAURRENTZAT, LARUNBAT HONETARAKO FAMILIA PLANA

Aniztasuna altxorra bada eta gauzak modu desberdinean egiteak konponbideak ekartzen baditu, Aioko uharteko biztanleak ez dira konturatu. Baztertuak izan diren bi haur dira istorio honen protagonistak eta haien bidez beren komunitateak dituen komunikazio eta zainketa arazoak, hondamendi naturalak, jeinuak, munstroak eta bidaia zoragarriak ezagutzeko aukera izango dute txikienean. Sarrerak alde aurretik erosi beharko dira Lizardin 5 euroren truk.

■ Abenduak 19 larunbata, 17:00etan Sutegin.



Sarrerak alde aurretik erosi beharko dira Lizardin 5 euroren truk.

Auto Guria s.l.
Auto Guria
Mobil Service

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

Oinutsik
PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

www.oinutsik.com - 943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!
*Sustraitu osasuna
oinetatik*

Oinutsik
© 943 11 09 54
*Ondo pasa
Gabonetan!*

ANTONIO URRUZOLA AROSZTEGIA

Zorionak eta
urte berri on!

Tel.: 943 376 415

Faxa: 943 360 510

Asteasuain Industrialdea, 3.

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA

Ondo pasa
Gabonetan!



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIKUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 g15usurbil@gmail.com

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

 **Inaki
Iturgintza**

Ondo pasa
gabonetan!!!

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMAILEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

600 024 825

info@inakiliturgintza.com - www.inakiliturgintza.com

mur
errotuluak

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

TASIO KOMIKIGILEAREN BINETAK SUTEGIN IPINI DITUZTE IKUSGAI

Aurreko astean amaitu zen “Emakumeak, Elikadura-buruja-betzaren protagonistak. Kubataren eta euskaldunen bizipenak” erakusketa. Tadamun Talde Internazionalistak, hala ere, egun hauetarako bigarren proposamen bat luzatu du Sutegiko erakusketa-aretoan. Tasio umorista grafikoak “Cuba Información” egunkarirako egin zituen binetak biltzen dituen erakusketa, hain zuzen ere, *Tasioren Kuba* izenpean.

Tasio komikigile ezaguna da Euskal Herrian, Gara egunkarirako urte luzetan egin dituen binetengatik. Erretiroa hartu berri du artistak, baina urte luze hauetan egindako lanak oraindik ere bizirik daude. Gara egunkariaz gain, “Cuba Información” egunkarirako ere hainbat bineta egin zituen, eta horiek izango dira erakusgai Sutegin 26 xaflatan hilaren 20ra arte.

■ Abenduaren 20ra bitarte ikusgai Sutegin.



“Cuba Información” egunkarirako eginiko lanak Sutegin daude ikusgai.

HASIERAKOAK	
URDAIAZPIKO IBERIKOAREN KROKETA KIKOekin (unitateak)	1 €
BAKAILAO-KROKETA PANKOAREKIN (unitateak)	1 €
LAPIKO KROKETA (unitateak)	1 €
MUSKULUAK (unitateak)	1,2 €
PIKA-TXUS (unitateak)	1,2 €
ENTSALADAK	
PIPER ERREAK MENDREZKAREKIN ETA PIPER-OZPIN-OLIOAREKIN	7,5 €
✓ ENTSALADA BERDEA	3 €
MIXTA ENTSALADA	6 €
ETXeko ARROZAK	
✓ OLARRONDO BARATZEKO ARROZ KREMATSUA	10,5 €
LURRA ETA ITSASOA	15 €
✓ ONDO-RISOTTOA	9,5 €
RISOTTOA FOIE-AREKIN 5 THAI GAZTAREKIN	9 €

ARRAINAK	
ZAPO ETA OTARRAINXKA-BURRUNTZIA AJILIMOJILIAREKIN	18 €
TXIPIROIAK BEREN TINTAN	10,5 €
BAKAILAOA BIZKAIKO ERARA TOMATEAREKIN	8,5 €
HARAGIAK	
ARKUME ERREA TEMPERATURA BAXUAN	25 €
TXERRIKUME ERREA TEMPERATURA BAXUAN	25 €
MASAILAK ARDO BELTZETAN	14 €
MASAILAK TXAKOLIN-ERARA, SUKALDARIAREN ERARA	10,5 €
ENTREKOT ALBONDIGAK TOMATEAREKIN	9 €
OSAGARRIAK	
✓ OLARRONDO ERAKO PATATA ERREAK	4,5 €
✓ BARAZKI-PANATXEA	5,5 €
✓ PIKILLO PIPERRAK BARATXURIAREKIN BERE ZUKUAN	4 €



eramateko edo etxerako
EGIN ESKAERA

626 686 036

@OLARRONDOJATETXEA

GLUTENIK GABE

GURE POSTREAK

	RAZIOA / OSOA
✓ IDIAZABAL GAZTA-TARTA ETA AHABI COULISBEA	8,5 € / 25 €
✓ PANTXINETA OLARRONDO ERARA	5,5 € / 25 €
✓ ETXeko BROWNIEA KREMA INGELESAREKIN	5,5 € / 16 €
✓ BANANA TARTA TXOKOLATEAREKIN	5,5 € / 18 €

SALTSAK

✓ MAIONESA	0,3 €
✓ ALI-OLI	0,5 €
✓ SOJA	0,5 €
✓ ARROSA	0,5 €

OGIAK

✓ OGIA IRIN FRANTSESAREKIN (BARRA)	1 €
✓ OGIA IRIN KATALANAREKIN (BOLO)	0,8 €
✓ OGIA ALEMANIAR IRINAREKIN (BICKEL)	0,8 €

edaritegia
BORDATXO edaritegia

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

Zorionak eta urte berri on !!


Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42


Bixen
ileapaindegi mistoa

Ilearen erorketaren aurkako tratamendua

Zorionak eta Urte Berri On!

Irazu Kalea 2, Usurbil · 943 37 28 44


ARRANDEGIA
PELLO


EGIN ZURE ESKAERAK
WHATSAPP-ETIKI!

ONDO PASA GABONETANI

ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30

650 31 31 91 PUNTAPAX 7, USURBIL



Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!

Kale Nagusia 10, USURBIL
Tel. 943 36 11 82

'HIL KANPAIAK' FILMA IKUSTEKO AUKERA APARTA

Abenduaren 20an, Sutegi zinema areto bilakatuko da *Hil Kanpaiak* euskarazko filma hartzeko.

Protagonista aski ezagunak ditu filmak, puri-purian dauden hiru aktore: Itziar Ituño European ezaguna *La Casa de Papel* telesailen parte hartu izanagatik; Eneko Sagardoy *Handiaren* azalean sartu zena eta Yon Gonzalez *Las Chicas del Cable* edota *Bajo Sospecha* telesailen aritu zena.

Garizmendi baserrian giza-hezur batzuk aurkituta, halaxe hasten da filma. Fermin eta Karmen senar-emazteek, zer egin jakin gabe, Nestor semea jarri dute

hezur horien kargu. Biharamunean, Fermin ez da ageri, eta Nestor konturatu da hezurak ere desagertu egin direla. Baserria miatze lanetan ari direla, hil-kanpaiak jotzen hasi dira auzoko baselizan.

Thriller beltz bat

Imanol Rayoren filmak familia arteko gorrotoa, belaunaldi ezberdinen arteko gatazkak, zigorrik gabeko krimenak eta mendekua nahasten ditu tragedia ukituak dituen thriller beltz honetan.

■ Abenduak 20 igandea, 18:00etan Sutegin. Sarrerak 6 eurotan salgai usurbilkultura.eus atarian. NOAUA!ko bazkideek 4 eurotan, soilik NOAUAn eskuragarri.



Itziar Ituño, Yon Gonzalez eta Eneko Sagardoy (argazkian) dira protagonista nagusiak.

*Neguko
Jaietako
Eskaintza
Berezia*

TXANGURROZ BETERIKO PIPERRAK	6,00 € (3 UNIT.)
URDAIAZPIKO EDO TXIPIROI KROKETAK	6,00 € (8 UNIT.)
ARRAI ZOPA (450ML)	6,50 € PERTSONAKO
BAKAILADA SALSA BERDEAN	8,50 € PERTSONAKO
TXEKOR MASAILAK (180G)	12,00 € PERTSONAKO
GARAIKO BARAZKIEN MENESTRA	7,00 € PERTSONAKO

ARTZABAL
BASERRIA - JAIETXEA
PUNTAPAX 8 - 943 36 91 39



Xabier Larrarte Ezeiza
Enpresaritzan Lizentziatua

Zubiaurrenea, 10 Behea
20170 USURBIL

943 371 807
larrarte@grupolarrarte.com



LARRARTE
ASEGURU ETA INBERTSIOAK S.L.

Patri
Patri^{enea}
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

kale nagusia 14. 20170 USurbil

*ondo pasa
gabonetan!*



GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

628 45 78 39

reformasmonroy@hotmail.es TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

“MUKWANO-LAGUN” ARGAZKI ERAKUSKETA SUTEGIN

Duela urtebete itzuli zen Alaitz Aizpurua Ugandatik. Han Mukwano-Lagun Elkartearekin kolaboratzen aritu zen elkarteak sortutako eskolan. Gabon hauetan, abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra bitartean, argazki erakusketa prestatu du bertan bizi izan zituen esperientziak ikustarazteko. Abenduaren 23an, bai Alaitzek, bai eta Elkarteke lehendakari Sabin Gabilondok solasaldia eskainiko dute proiektuaren nondik norakoak ezagutarazteko.

NOAUA! Nolatan bururatu zitzaizun Ugandara joatea Mukwano-Lagun elkartearekin?

Alaitz Aizpurua: Betidanik izan dut Afrikarekiko har berezi hori. Afrika oso gustuko dut eta hango bizipen berezi baten bila nabilen oporralditik haratago. Sei hilabeteke tarte hartu nuen Ugandara joateko. Gisa horretako bizipen batez aprobe txatu ahal izateko hemengo elkarteak bilatzen hasi nintzen, gertutasun eta konfiantza baten bila. Modu horretara ezagutu nuen Mukwano-Lagun elkarte, eta aukera eman zidaten nire desioa betetzeko. 2019ko uztailean joan eta gabonetan itzuli nintzen.

Argazki asko egin zenituen sei hilabete horietan. Asmo jakinen batekin egin zenituen?

Argazkiak ez nituen helburu konkretu batekin egin. Argazkiak asko gustatzen zaizkit, eta hango egunerokotasuna jasotzeko asmoarekin atera nituen argazkiak. Niretzat ateratzen nituen, ez beste inorentzat. Orain, urtebete geroago, Hitz-Aho guraso elkarteak zerbait antolatu nahi zuen Mukwano-Lagun elkartearekin eta ideia definitzen hasi ginenean solasaldiaren ideia eta argazki-erakusketarena otu zitzaizkigun. Solasaldiaren bidez elkartearen nondik-norakoak azalduko ditugu Sabin Gabilondo lehendakariarekin batera, baina horretaz gain, argazkiak jartzeak denbora gehiagoan gaian sakontzeko aukera ematen zuela iruditzen



Alaitz Aizpurua 6 hilabetez egon zen Ugandan. Handik ekarritako irudiekin argazki erakusketa zabalduko du abenduaren 23an Sutegin.

zitzaigun, eta zerbait abstraktua baino, errealaigo egiten zuela esperientzia.

Zure lehen argazki-erakusketa da?

Bai eta gainera aitortu behar dut ez naizela

erosoegi sentitzen. Ni ez naiz argazkilaria, eta argazkilaritza ez da nire mundua. Nire hobby bat da eta oso modu intimoan atera ohi ditut argazkiak. Errespetua ematen dit nolabait.

ABENDUAREN 23AN, SOLASALDIA

NOAUA! Hitzaldian ere parte hartuko duzu?

Alaitz Aizpurua: Bai, solasaldiaren gidaria Sabin Gabilondo izango da. Urte askotan aritu da proiektuan lanean eta berak sortu zuen elkarte. Beste ikuspuntu bat eskaintzen du bere esperientziak. Nik ere gaur egun kolaboratzen jarraitzen dut elkartearekin eta nire eguneroko bizitzaren parte da. Hitzaldia baino gehiago solasaldi modura planteatu dugu ekitaldia, entzuleen galderetatik sortuko da neurri handi batean. Guk ere gauzak kontatuko ditugu, baina solasaldi bat izango da batetik bat.

Zer-nolako harrera espero duzue?

Ni ez naiz oso objetiboa, beste begi batzuekin begiratzen dut gaia, baina nik uste erakargarria badela. Egin ditu-

gun gauza txiki horietan erantzuna jaso dugu eta nik uste denok garelako solidario bakoitza bere neurrian eta bere modura.

Salmentan ere jarriko ditugu han egindako lan batzuk, jendeak laguntza txiki bat eman dezan. Bolondres modura hara joateko aukera ere eskaintzen dute, eta nik horretarako aukera edo gogoia duten guztiak animatu nahi nituzke horretarako: bi asterako joateko aukera dago, hilabete, urte erdi, urte eta erdi... Bakoi-tzak nahi duena. Izugarriko esperientzia da eta pertsona gisa ere asko ematen duen zerbait da.

■ Abenduaren 23an asteazkena, Alaitz Aizpurua eta Sabin Gabilondoren solasaldia 18:00etan Sutegiko erakusketa aretoan.

Antolatzailea: Hitz-Aho. Laguntzailea: Udala.

Zorionak eta
Urte Berri on!



Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua Dermofarmazia
Produktu homeopaticoak Maisu formulak




Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

Zorionak eta
urte berri on!

INTZA

ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA



formularen
% 80
jatorri
naturala

**Kolorazio iraunkor
naturala
ile eta buruko
larruazala zainduz**



KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

NOAUA!KO BAZKIDE IZATEAK SARIA DAKAR

Dirulaguntza instituzionala ez da nahikoa. NOAUA! bezalako proiektu bat bizirik mantentzeko behar beharrezkoa da bazkideen eta publizitatea jartzen duten bezeroen ekarpena. Urtero moduan, eskerrak eman nahi dizkizuegu kultur elkarte hau sostengatzeagatik. Herriko nahiz gertuan ekoiztutako produktuez hornitutako saski ederrokin adierazi nahi dizuegu gure eskertza. NOAUA! K.E.-ko bazkideen eta publizitatea kontratatzen dutenen artean bina otar zozketatu ditugu eta aurten hauek izan dira sarituak. Zorionak eta milesker guztioi!

Bazkideen Txokoko azken zozketa:

■ Reyes Leiva. "2 urte, 4 hilabete eta egun bat" filma Sutegin ikusteko bi sarrera. Abenduaren 13an igandea, arratsaldeko 18:00etan Sutegin.

■ Jose Manuel Matxain. "Hil kanpaiak" filma Sutegin ikusteko bi sarrera. Abenduaren 20an igandea, arratsaldeko 18:00etan Sutegin.



NOAUA!k antolatu dituen bi film proiektioetarako sarrera batzuk zozketatu ditugu bazkideen artean. Reyes Leivak "2urte, 4 hilabete eta egun bat" ikusteko bi sarrera irabazi ditu eta Manuel Matxainek "Hil kanpaiak" ikusteko bi sarrera.

Publizitatea jarri dutenen arteko zozketa:

- Txirristra taberna.
- Atallu autoak.

Bazkideen arteko zozketa:

- Eukene Kamino.
- Jesus Zubimendi.

Bazkideen arteko zozketan



Bazkideen arteko zozketan:
Eukene Kamino.



Bazkideen arteko zozketan:
Jesus Zubimendi.

Publizitatea jarri dutenen artean



Publizitatea jarri dutenen artean:
Txirristra taberna.



Publizitatea jarri dutenen artean:
Atallu autoak.

Marije

Arropa denda

Etxebeste 3 - 943361106

facebook.com/marijearropadenda

Rafa

iturgindegia

- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfindatzazko gremioak
- Komuneko altzariak

Bordaberri kalea 1, 1 behea • @ 943 36 80 04

KAMDEN

hizkuntzak

English courses

Merry Christmas to all!!
See you in January

Ondo pasa Gabonak!!

Ordutegia:
16:00-20:00
informa zaitez!

Zubiaurrenea 6 • Tlf 646 94 58 17
www.kamdenhizkuntzak.com

Ondo pasa Gabonetan!

ZENDOIAENEA

taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil

GAZTELEKUKOekin TXURI URDINERA

Gaztelekuak hainbat ekintza antolatatu ditu DBHko ikasleentzat. Aurtengoan, Txuri Urdinen izotz gainean patinatzea da proposamena. Gazte pilaketak ekiditeko, maila bakoitzak egun bat izango du Donostiako Izotz Jauregia bisitatzeko. DBH3ko ikasleak abenduaren 21ean joango dira. Abenduaren 23an hartuko dute erreleboa DBH2ko ikasleek eta azkenak gazteenak izango dira, DBH1eko ikasleak hilaren 30ean.

Guraso baimenak Gaztelekuan entregatzea ezinbestekoa izango da irteeretan parte hartu ahal izateko. Baimen orriak ere Gaztelekuan bertan hartu beharko dira. Ekintzei buruzko informazio gehiago nahi



Guraso baimenak Gaztelekuan entregatzea ezinbestekoa izango da irteeretan parte hartu ahal izateko.

izanez gero: ordutegia, dirua, garraioak, materiala... Gaztelekura jo zuzenean edo

email bidez nahiz telefono bidez galdetu: gaztelekua@usurbil.eus / 943 37 10 50.

Aizpurua Autobusak
enpresako lan taldeak
jai zoriontsuak opa dizkizue!

www.autocares-aizpurua.es 943 36 32 90 Faxa: 943 36 32 96

Zorionak eta
urte berri on!



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba



Rtalu industrialdea 26 ☎ 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com www.alkartasunausurbil.eus



Zorionak eta
Urte Berri on!

antenas
Telemar

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

6855 zenb. telekomunikabide erregistroan

Uraitz, s.l.



Igeltseritza
Orokorra

ONDO PASA GABONETAN!

Telefona
693 05 93 92

Borda Berri 2, 3.A USURBIL

uraitz@uraitz.com

URTEROKO KABALGATARIK EZ AURTEN

Ziortza Gazte Elkarte arduratu ohi da urteroko Errege Kabalgata antolatzeaz. Hiru erregeak zaldian igota, eta dozenaka laguntzailerekin Urdaigatik beherako bidea egiten dute urtero, herrian amaituz ibilbidea, bertaratutako haurrei gozokiak eskainiz. Goizean, erregeen mezulariak frontoian bildu ohi dira haurren eskutitzak biltzeko.

Aurtengoan, ordea, betiko kabalgata egitea bideraezintzat jo dute pandemia egoera dela eta. Bertan behera uztea ere ez zaie aukera egokia iruditu, urteroko ohitura horiek erabat baztertzeak pena ematen dielako. Zerbait egingo dute, hala ere. Zehaztasun gehiago jasotzean eman dugu horren berri.



Pandemia egoera dela eta, Ziortzakoek betiko kabalgata egitea bideraezintzat jo dute.

**MIKEL
ARRANDEGIA**

MIKEL ARRANDEGIA

Zorionak eta urte berri on!

San Inazio, 1 • ☎ 943 366 356

PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



*Abenduaren 24, 25 eta 31 eta urtarrilaren 1ean itxita
ondo hasi 2021 urtea!
eta zatoz gure aurtengo sagardoa dastatzera!!*

txinparta
SAGARDOTEGIA

Eguneko menuak, pintxoak, ogitartekoak, razioak
Illarra Berri, 2 (Igara) DONOSTIA 943 22 47 00

PANDEMIA GARAIAN SORKUNTZA EZ DA ETEN

Covid-19ak kendu ez digun edo emaria eten ez zaion iturria sorkuntzarena dugu. Usurbil dugu horren adibide argia. Herritarrek hainbat sortze lan plazaratu dituzte guztiz ezohikoa izan eta amaitzean dugun urte honetan. Oparitza egokitzen den garaiotan, zer hobeto Usurbilgo sortzaileen lanak elkarbanatzea baino. Asteotan ikusgai izango dituzue Sutegi udal liburutegiak eta NOAUA! Kultur Elkarteak urtero moduan, Sutegin jarri duten erakusketa-txoan. Lan bilduma hau liburutegian bertan, edota Lizardi zein Laurok dendetan eskuragarri izango duzue.

Torrealdaren omenez

2020. urte gogor honek hainbat sortzaileez agurtu beharra ekarri du. Apirilean Jose Luis Zumeta zendu zen, uztaila amaieran Joan Mari Torrealdai. Torrealdai omenduz, Jakinek zenbaki berezia argitaratu du asteotan; bere ekarpena aztertzen duen “Torrealdai: euskara herri” izeneko zenbaki monografikoa hain zuzen. Euskalgintza, liburugintzaren ikerketa soziologikoa, euskarazko hedabideak, zentsura, liburutegi nazionala, eremu guztiotan eginiko lan itzela eta bere bizi eta ibilbidea ahotan hartzen ditu. Horrez gain, bere obra osoa digitalizatu eta “Euskal



Oparitza egokitzen den garaiotan, zer hobeto Usurbilgo sortzaileen lanak elkarbanatzea baino.

LANAK IKUSGAI ETA SALGAI

**“Lan bilduma hau
Sutegi udal liburutegian,
edota Lizardi zein Laurok
dendetan eskuragarri
izango duzue”**

pentsamendua” atalean sareratu du Jakin-ek; jakin.eus atarian.

“Txalaparta, tradizioaren abaroan”, Joxan Artzeren azkena

2018ko urtarrilean zendu zen Joxan Artzek hasita bai baina halabeharrez amaitu gabe utzi zuen “Txalaparta. Tradizioaren abaroan” lana aurkeztu du asteotan Elkarrek. “Artzek utzi bezala argitaratu nahi izan dugu”. Amaitu gabeko lana baino amaierarik ez duena da argitaletxearen esanetan. “Irakurleak Artzerik poliedrikoena topatuko du bertan”.

USURBILDARREN 2020KO UZTA

- Txalaparta. Tradizioaren abaroan, Joxan Artze (Elkar).
- Txokolategia, Yolanda Arrieta Malaxetxebarria (Denonartean).
- Amona Tomaxaren abenturak 2, Ixabel Agirresarobe / Iñaki Martiarena Mattin (NOAUA!).
- Amona Tomaxa eta gizandia, Ixabel Agirresarobe / Iñaki Martiarena Mattin (Elkar).

- Etxeko landareak, Jakoba Errekondo (Argia).
- 2021. Ilargia eta landareak, Jakoba Errekondo/Antton Olariaga (Argia).
- Basolatik berri onik ez, Asisko/Joseba Larratxe (Ikastolen Elkarte).
- Gau beltza, Joseba Larratxe/Josu Ozaita (Txalaparta).
- Hankazikin, Joseba Larratxe/Pablo Barrio (Zubia).

- Tomas Zumalakarregi eta bere garaia, Nafartarrak Kultur Taldea (Nabarralde).
- Torrealdai euskara herri, argitalpen monografikoa (Jakin).
- Kronik@, Mihise (CD/LP, Balio Dute).
- Among us: un cuento de terror espacial, Pello eta Josu Altadill.
- Programación para niños: aprender a programar fácilmente con Python, Pello Xabier Altadill Izura-June Altadill.

Aguirrezabal Estankoa

*Zorionak
eta urte berri on!*

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110

GOLDWELL
ELUMEN

*i
l
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i*



Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK
OBRAK

BERRITZE LANAK

urdaintzi@euskalnet.net

IT-ak egiten
dira

*Onda pasa
sabanetan!*

GABONAK HERRIKO IKASTETXEETAN

Gabon atipiko samarrak ditugu aurtengoak, eta hori ekitaldi guztietan atzemango da, ongi dakite hori herriko eskoletan. Urteroko San Tomas festak, Olentzero plazaratzea eta kantaldirik ez da izango aurten, ez behintzat urtero moduan.

Zubietan

Zubietako Eskola Txikian abenduaren 16an jaso zuten galtzagorrien bisita. Eskolako haurrek eskutitzak idatzi zituzten gabonetako opariak eskatzeko, eta zaku hori hartu eta umeekin dantza egiteko aprobeztatu zuten galtzagorri alprojek. Mari Domingiren bisita ere izango dute datozen egun hauetako batean, Olentzeroen lagunak zita jarrita baitauka eskolako haurrek zer opari nahi dituzten jakiteko. San Tomas Egunarekin bat, berriz, oporrak ate-joka direnean, burbuilaka elkartu, eta talde bakoitzak gainontzekoei abesti bana eskainiko diete mailaka, eta gero Guraso Elkarreak sukaldatutako txistorra pintxo bana jango dute haurrek geletan. Ekintza guztiak eskola barnean egingo dituzte, pilaketak ekidin eta burbuilak ez nahasteko.

Aginagan

Aginagako Eskola Txikian ere ekitaldiren bat aurreikusi dute gabonei ongi etorria emateko. Abenduaren 22an auzoan zehar kantatzera aterako dira LHko



Udarregi ikastolan ez dute kanpo ekintzarik aurreikusten Eguberri hauetan. Argazkia iazkoa da.

EKITALDI ASKO, BERTAN BEHERA

“San Tomas festa, Olentzero plazaratzea, kantaldiak... Horrelakorik ez da izango aurten, ez behintzat urtero moduan”

ikasleak. Bizikidetzat taldeak izanik, ez daukate arazorik gainontzekoekin ez nahasteko. Kantaldiaren amaiera, frontoian elkartuko dira HHko ikasleekin eta abesti batzuk abestuko dituzte denek batera; beti ere segurtasun neurri guztiak harturik. Amaitzeko, Guraso Elkarreak txistorra eskainiko die ikasleei.

Udarregin

Udarregi Ikastolan erabaki dute haur eta gazteak ez dituztela nahastu nahi kutsatzeak ekiditeko. Orain arte egindako lana ez dute alferrikakotzat jotzen, eta beraz, kanpo ekintzarik ez dute aurreikusi aurten. Horren ordez, Ikastola barnean antolatuko dute ospakizun txiki bat, taldeak gainontzekoekin ez nahasteko moduan.

Haur Eskolan

Usurbilgo Haur Eskolan berriz, 2-3 urteko haurrengana hurbilduko dira Olentzero eta Mari Domingi hilaren 18an, eta haurrentzako berezia egingo dute.

ABENDUAREN 28AN, HAURRENTZAKO BERTSO-SAIOA SUTEGIN

Gabonak haurren paradisu direla esan ohi da, eta aurten modu ezberdinean ospatu beharko badira ere, txikiek ez dute protagonismorik galduko. Bertsozale elkarteak eta Bota Punttubaren es-

kutik, haurrei zuzendutako bertso-saioa izango da Sutegin hilaren 28an, arratsaldeko 17:00etan. Haritz Mujika eta Maialen Akizu bertsolariak zuzenduko dute haurrentzako ekintza berezi hau. Sarre-

rak doan izango dira, eta usurbilkultura. eus atarian eskura daitezke. Kontuan izan sarrera-kopurua mugatua dela eta 9 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoela saioa.

Elexpe

Ukapaindegia



Zorionak!

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta
etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12 • ☎ 943 370 462



ITZIRA
BARRIKUNTZAH

Zorionak eta urte berri on!



943 530 337
607 119 313

- gremioen koordinaketa • berritze lanak
- sukaldeak • komunak • mota guztietako obrak
- aurrekontua konpromisorik gabe

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

txirriStra

TABERNA




- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Zorionak eta urte berri on!

Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66

TXIRIBOGA

TABERNA



Ondo pasa Gabonetan!

IRAZU KALEA 6, USURBIL

PAILAZOAK

BISITAN DATOZ

Urtarrilaren 4an jasoko du Oiardo kiroldegiak Euskal Herriko sudurgorri famatuenen bisita; Pirritx, Porrotx eta Marimototsena. Amaren *Intxaurrek* izeneko ikuskizuna aurkeztera etorriko dira.

Abenduaren 21ean jarriko dira sarrerak salgai

Ikuskizun berrian, Marimototsen ama izango dute gogoan, duela hiru urte hil zena. Intxaurrendoa landatu zuten amaren oroimenez, bere agurrean. Intxaurrendoa horrek emandako fruitutik abiatzen da istorioa: intxaurrek jan ahala, Marimototsen amarekin bizitako abenturak partekatuko dituzte haur eta



Pirritx, Porrotx eta Marimotots Oiardo kiroldegian arituko dira urtarrilaren 4an.

familiekin. Behin dolua igarota, pozez daude pailazoak eta irri begiratzen dute bai iragana, bai oraina, bai eta etorkizuna ere. Intxaurre zaporeko irriak dira.

■ Urtarrilak 4 astelehena, 18:00etan

Oiardon kiroldegian.

■ Sarrera: 8 euro (urtebetetik aurrera).
Abenduaren 21etik aurrera salgai, soilik NOAUAko bulegoan. NOAUAko ordutegia: 9:00-13:00/16:00-18:00.




**ASEGURU ARTEKARITZA
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01
pikabea@pikabeaaseguruak.com



Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS



“Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean
noizpait giñaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe:
lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera
gogorki loturik gaude.”

Xabier Lete

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON



eaj-prv.eus

Abenduak 14-urtarrilak 7

■ “Usurbilgo sortzaileen uzta” erakusketan SuteGIN.

Antolatzaileak: SuteGI udal liburutegia eta NOAUA! Kultur Elkarte.

Abenduak 16, asteazkena

■ 18:30 Hitzaldia SuteGIN: “Aranzadi zientzia elkarte: errotrariak eta mugariak”.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduak 17, osteguna

■ 18:30 Hitzaldia SuteGIN: “Indarkeria matxista, Covid-19aren testuingurua: nola egingo diogu aurre Usurbilen”.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduak 18, ostirala

■ 19:00 “El Drogas” dokumentala SuteGIN. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

■ 19:00 Santuenerako plazan jarriko den zuhaitza piztuko dute.

Antolatzailea: Santuenea Auzo Elkarte.

Abenduak 19, larunbata

■ 17:00 “Aioko” antzerki, txotxongilo eta itzalen ikuskizuna SuteGIN.

Antolatzailea: Hitz Aho.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduaren 20ra arte

■ “Tasioren Kuba” erakusketa SuteGIN.

Antolatzailea: Tadamun.

Abenduak 20, igandea

■ 18:00 “Hil kanpaiak” filma SuteGIN.

Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

Abenduak 21, astelehena

■ Donostiako Txuri Urdinera irteera DBH3koentzat.

Antolatzailea: Gaztelekua.

Abenduak 22, asteartea

■ 17:00 “Etxean goxo, txotxongilo-antzerkia” (Rosa Mari Martinez) SuteGIN.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduak 23-urtarrilak 6

■ 18:00 SuteGiko aretoan, “Mukwano-Lagun Bujagalin (Uganda) Alaitz Aizpurua-ren begietatik”, erakusketaren irekiera.

Antolatzailea: Hitz Aho.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduak 23, asteazkena

■ Donostiako Txuri Urdinera irteera DBH2koentzat. Antolatzailea: Gaztelekua.

■ 18:00 Ezohiko udalbatzarra udaletxean. 2021eko udal aurrekontuen hasierako onarpena. Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduak 24, osteguna

■ 18:00-21:00 Olentzero, auzoz auzo.

■ 19:30 Olentzeroren mezua Mikel Laboa plazan.

Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Abenduak 26, larunbata

■ 18:00 “Xabier Leteri kantari: loreak eta zauriak” ikuskizuna SuteGIN.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduak 27, igandea

■ 17:00 “Tomaxen abenturak. Azken bala” ikuskizuna SuteGIN.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduak 28, astelehena

■ 17:00 “Bertsojasa” SuteGIN.

Antolatzaileak: Bertsozale Elkarte eta Bota Punttuba.

Abenduak 30, asteazkena

■ Donostiako Txuri Urdinera irteera DBH1ekoentzat.

Antolatzailea: Gaztelekua.

Abenduak 31, osteguna

■ 19:30 “Kantu-Topa” Dema plazan.

Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Urtarrilak 2, larunbata

■ 19:00 “Petti: manipulazio estrategiak” SuteGIN.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Urtarrilak 4, astelehena

■ 18:00 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Amaren intxaurrak” Oiarde Kiroldegian. Antolatzaileak: Usurbil, NOAUA!.

■ Sarrera: 8 euro (urtebetetik aurrera). Abenduaren 21etik aurrera salgai, soilik NOAUAko bulegoan. NOAUAko ordutegia: 9:00-13:00/16:00-18:00.

Urtarrilak 9, larunbata

■ 17:30 “Bidea gara” euskal presoek eskubideen aldeko manifestazioa Usurbilen.

Deitzailea: Sare.

Oharrak:

■ Behin behineko agenda, aldaketak izan ditzake.

■ Covid-19ak eragindako pandemiara egokitutako hitzorduak izango dira.

■ Ekitaldi aniztarako sarrerak aurrez usurbilkultura.eus atarian eskuragarri.

noaua.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak,
agenda, zorion-agurrak,
eguraldia, aldizkaria online...
Klik batean den-dena ikusgai zure
eskuko telefonoan, tablet-ean
edo ordenagailuan.



Josue Igeltseritza S.L.

☎ 606 37 21 05

Ondo pasa
GABONETAN!

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Atallu industrialdea, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

*Osasuna eta askatasuna
Urte berri on!*

